

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Moderna Fundazioa desagerrarazteko erabakia hartu du

Sodenak bere gain hartuko ditu proiektuak, eta eragile ekonomikoen partaidetza Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren bidez bideratuko da

Miércoles, 04 de noviembre de 2015

Nafarroako Gobernuak [Moderna Fundazioa](#) desagerrarazteko erabakia hartuko du gaur, asteazkena, egindako bilkuran. Hark garatutako proiektuak [Nafarroako Garapenerako Sozietateak](#) (Sodena) bere gain hartuko ditu, eta eskubide nahiz betebeharrak guztiak subrogatuko ditu, lan-arlokoak barne.

Neurri hori Nafarroako Gobernurako [programa-akordioan](#) jasota dago; hark Fundazioa likidatzea proposatzen zuen zehazki, eta "hausnarketa estrategikorako plataforma berri bat sustatzea eragile ekonomiko eta sozial nagusien partaidetzarekin".

Nafarroako Gobernuaren ustez, Sodenari dagokio (Nafarroako ekonomia eta enpresa garatzeko tresna publiko nagusia) MODERNA Planeko estrategia sustatzeko jarduera ("Nafarroako Garapen Ekonomikorako Ereduaren" akronimoa), eta baita orain Fundazioak kudeatzen dituen proiektuak bultzatzea ere.

Plangintza-prozesuetako eragile ekonomikoen partaidetza Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren bidez egingo da, Foru Administrazioaren kontsulta-organoa dena.

Aurrekariak

Manuel Ayerdi Olaizola lehendakariordeak, entitateko batzorde iraunkorreko lehendakari izanik, egikaritu du Gobernuaren erabakia Fundazioaren estatutuei jarraiki, eta 2010ean sustatu zena lankidetzara publiko-pribatuko tresna modura Moderna Plana egikaritzeko. Foru Administrazioaren babesean sortu zen, gehiengo entitate sortzailea izan zena, % 76,66ko ekarpena eginez.

Beste erakunde sortzaile batzuk ondorengoak izan ziren: Unión del Pueblo Navarro, Nafarroako Alderdi Sozialista, Nafarroako Enpresarien Konfederazioa, Unión General de Trabajadores eta Comisiones Obreras sindikatuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Unibertsitatea. Gaur egun, haien ordezkariak [gobernuko organoen](#) barnean daude.